Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko martxoaren 5a, asteartea — 44 — Martes, a 5 de marzo de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZKOITIKO UDALA

*Iragarkia*

2019ko otsailaren 20ko Euskarako Zinegotzi Delegatuaren Dekretuz honako ebazpenak onartu ditu:

*Lehena:* Azkoitiko enpresetan euskara planak sustatzeko diru laguntzak lehia araubidez emateko 2019 ekitaldiko deialdia onartzea.

*Bigarrena:* Diru laguntza horiek aurkezteko azken eguna 2019ko uztailaren 12a ezartzea.

*Hirugarrena:* Aipatutako diru laguntzak emateko gastua onartzea honakoaren arabera:

Aurrekontu partida: 3300.481.335.00.02.

Entitateei diru laguntza: 4.000,00 €.

*Laugarrena:* 2019 ekitaldiari dagokion deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, udaletxeko iragarki oholean, gardentasun atarian eta prentsan argitaratzea ondoko edukiarekin:

(Azkoitiko enpresetan euskara planak sustatzeko diru laguntzak emateko oinarriak Udalbatzak 2013ko apirilaren 25ean onartu zituen (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 114 zk., 2013 uztailaren 17a).

*1. Diru laguntzaren xedea.*

Azkoitiko enpresak euskararen erabilera planak egitea edota garatzea bultzatzea.

*2. Diru laguntzen zenbatekoa.*

Udalak enpresa bakoitzari emango dion gehienezko diru laguntza urteko 2.000,00 eurokoa izango da, eta Jaurlaritzak xede berarekin emandako diru laguntzaren osagarri izango da.

*3. Diru laguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak.*

— Egoitza soziala eta fiskala Azkoitian izatea.

— Irekiera baimena izatea.

— Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritako klausularen baten pean ez egotea.

— Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Udalarekikoak egunean izatea.

— Euskara plana diru laguntza ematen den ekitaldian diseinatutakoa izatea, edo aurreko urteetan diseinatutakoa izan arren, urte horretan garatzen aritzea.

— Erabilera plana garatzeko eskaera egina eta onartua izatea, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak EAEko lantokietan euskararen erabilera plana egin edota garatzeko diru laguntzak emateko modua arautzen duen urte bereko Aginduaren arabera.

— Diru laguntzetarako 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluak ezartzen dituen betebehar guztiak betetzea.

## AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Anuncio*

Aprobado por Decreto de la Concejala Delegada de Euskera de fecha 20 de febrero de 2019, las siguientes resoluciones:

*Primera:* Aprobar la convocatoria de concesión de subvenciones en régimen de concurso para la promoción de planes de euskera en empresas de Azkoitia en el ejercicio de 2019.

*Segunda:* Establecer el 12 de julio de 2019 como último día para presentar dichas subvenciones.

*Tercera:* Aprobar el gasto para conceder dichas subvenciones, de acuerdo a los siguientes puntos:

Partida del presupuesto: 3300.481.335.00.02.

Subvenciones a las instituciones: 4.000,00 €.

*Cuarta:* Publicar la convocatoria correspondiente al ejercicio de 2019 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios municipal, en el portal de transparencia y en la prensa, con el siguiente contenido:

(Las Bases reguladoras de subvenciones para la promoción de planes de euskera en empresas de Azkoitia fueron aprobadas en Pleno municipal el 25 de abril de 2013 (*Boletín Oficial del Estado*, n.º 114, de 17 de julio de 2013).

*1. Objeto de las subvenciones.*

Promover la elaboración o el desarrollo de planes de uso del euskera en las empresas de Azkoitia.

*2. Importe de las subvenciones.*

La cantidad máxima que dará como subvención el Ayuntamiento a cada empresa será de 2.000,00 euros anuales, y complementará la subvención concedida con los mismos fines por el Gobierno Vasco.

*3. Requisitos que deben cumplirse para solicitar las subvenciones.*

— Disponer de domicilio social y fiscal en Azkoitia.

— Disponer de licencia de apertura.

— No estar incurso en ninguna de las causas establecidas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 del 17 de noviembre.

— Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la seguridad social, así como con el Ayuntamiento.

— Que el plan de euskera esté diseñado en el ejercicio en el que se conceda la subvención, o a pesar de haberse diseñado con anterioridad, se esté desarrollando durante el mismo.

— Que la solicitud para el desarrollo del plan de euskera esté aceptada, por la Orden del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco que regula el sistema de subvenciones para la elaboración o el desarrollo de planes de euskera en los centros de trabajo de la CAV correspondiente al año en curso.

— Cumplir todos los requisitos establecidos por el art. 14 de la Ley General 38/2003 para las subvenciones.

EK\CV GAO-I-2019-01280

*4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu.*

Udaleko Erregistro Nagusian (Herriko plaza z.g.) eta jendaurreko ordutegian 08:00-15:00 edota Herri Administrazioen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipatzen dituen lekuetan ere bai.

2019an eskaerak aurkezteko azken eguna 2019ko uztailaren 12a izango da.

*5. Aurkeztu beharreko agiriak.*

— Eskari normalizatua (I. eranskina) enpresa ordezkatzeko eskubidea edo legezko gaitasuna duenak sinatuta.

— Enpresaren arduradunaren NANaren edo horren baliokide den agiri baten fotokopia.

— Enpresaren IFKren fotokopia.

— Diru laguntza ordaintzeko kontua (20 digitu).

— Gainerako erakundeei, entitateei eta abarrei eskatutako diru laguntzen zerrenda, edo bestela, dagoeneko emanda dauden diru laguntzena, helburua eta zenbatekoa zehaztuta.

— Betebehar fiskalak, eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatuko duen ziurtagiria.

— EAEko lantokietan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak araututakoaren arabera, euskara planak egin edota garatzeko, eskaera egiten den urte berean aurkeztutako aurrekontuaren fotokopia.

*6. Diru laguntzak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko irizpideak.*

— Lehen urteko euskara plana izatea: 50 puntu.

— Plana aurreko urteetan diseinatutakoa izatea, baina urte horretan ere garatzen aritzea: 30 puntu.

— Planaren autofinantzatze maila: 20 puntura arte. Zenbat eta autofinantzatze handiagoa izan, orduan eta puntu gehiago emango da.

*7. Ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Eskaerak jasotzeko azken egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, euskara teknikariak horiek aztertu eta ebaluatu ondoren, behin betiko erabakiaren txostena egingo du diru laguntzak ebazteko ahalmena duen udal organoari, edo horrek eskuordetutakoari, emango diona aztertzeko, onartzeko eta informatzeko Euskara Batzordea.

*8. Diru laguntzen ordainketa.*

Ordainketa bakarra egingo da, baldintza guztiak bete direla egiaztatu eta gastua egin eta frogatu ondoren, behin diru laguntza ematea erabaki eta gehienez bi hilabeteko epean.

*9. Araudia.*

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan honako arauak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); eta Azkoitiko enpresetan euskara planak sustatzeko diru laguntzak emateko oinarriak (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 114 zk., 2013 uztailaren 17a).

*10. Errekurtsoak.*

Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunari, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari.

*4. Cuándo y dónde deben presentarse las solicitudes.*

En el Registro General del Ayuntamiento (Herriko plaza s/n) y en horario de atención al público de 08:00 a 15:00 horas o en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 2 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

El 12 de julio de 2019 será el último día para poder presentar las solicitudes en 2019.

*5. Documentos que hay que presentar.*

— Solicitud normalizada (anexo I), debidamente cumplimentada y firmada por quien tenga capacidad legal o derecho a representar a la empresa.

— Fotocopia del DNI o documento equivalente de la persona responsable de la empresa.

— Fotocopia del CIF de la empresa.

— Cuenta para efectuar el pago (20 dígitos).

— Relación de solicitudes de subvención formuladas ante otras instituciones, organismos, etc. o en su caso, de las que estuvieran otorgadas, detallando su cuantía y finalidad.

— Certificado de estar al corriente de sus obligaciones tributarias, y las obligaciones frente a la Seguridad Social.

— Presupuesto presentado el mismo año a fin de solicitar las subvenciones para la elaboración o el desarrollo de planes de uso del euskera en los centros de trabajo de la CAV reguladas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

*6. Criterios para la adjudicación y ponderación de las subvenciones.*

— Que sea el primer año de diseño e implantación del plan de euskera: 50 puntos.

— Que el plan de euskera esté diseñado en años anteriores, pero se siga implementando durante el año en curso: 30 puntos.

— Nivel de autofinanciación del plan: Hasta 20 puntos. Se obtendrán más puntos, cuanto mayor sea el nivel de autofinanciación.

*7. Plazo para la resolución y notificación.*

A partir del día siguiente del fin del plazo para la presentación de instancias y en el plazo de un mes, el técnico de euskera analizará y evaluará las solicitudes presentadas, redactará el informe correspondiente a la resolución definitiva al órgano municipal competente para decidir las subvenciones, o éste a su delegado, para su posterior análisis y aprobación, e informará a la Comisión Informativa de Euskera.

*8. Pago de las subvenciones.*

Se efectuará un pago único, previa justificación del cumplimiento de todos los requisitos e incursión y acreditación del gasto, una vez concedida la subvención en un plazo máximo de dos meses.

*9. Normativa.*

Para todo aquello no establecido en esta convocatoria se estará a lo dispuesto en: la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre (*Boletín Oficial del Estado* de 18 de noviembre); el Reglamento que la desarrolla, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (*Boletín Oficial del Estado* de 25 de julio); y las Bases reguladoras de subvenciones para la promoción de planes de euskera en empresas de Azkoitia (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, n.º 114, de 17 de julio de 2013).

*10. Recursos.*

Podrá interponerse recurso de reposición contra esta convocatoria en el plazo de un mes ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o bien podrá ser impugnado directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

*Bosgarrena:* Erabaki horiek Kontu-hartzailetza sailari jakinaraztea.

Azkoitia, 2019ko otsailaren 21a.—Euskarako zinegotzi delegatua. (1280)

En ambos casos, el plazo comenzará al día siguiente a la publicación de esta convocatoria.

*Quinta:* Comunicar dichos acuerdos al departamento de Intervención.

Azkoitia, a 21 de febrero de 2019.—La concejal delegada de Euskera. (1280)

EK\CV GAO-I-2019-01280